

Renoko Euskal Ikergunea gaur

Xabier Irujo Ametzaga

Center for Basque Studies-eko zuzendaria, katedraduna

Laburpena

1967an Euskal Ikasketen programa txiki bat ezarri zen Desert Research Institute-ko gizarte zientzien sailean. Jatorriz Nevadako basamortuan etorkinen bizimoduak aztertzeke sortu zena urteekin Center for Basque Studies (CBS) ikergunea bihurtu da. Estatu Batuetan errotuta, CBS-ko lehen eginkizuna euskal kultura arloan ikerketak bideratzea da eta euskaldunei buruzko ikerketaren emaitzak bertan, Estatu Batuetan eta nazioarteko mailan zabaltzea. Zabalpena argitalpenen bidez egiten da, nagusiki CBS Press-eko bildumaren bitartez, bai eta aurkezpenen, hitzaldien, konferentzien, eta mota guztietako sormen jardueren bidez. Era berean, The Basque Library, Renoko Euskal Liburutegia eta agiritegia, euskal kulturarekin eta euskal diasporarekin interesa duten ikertzaile guztientzat Ipar Amerika osoko euskal komunitatearen memoria erakundea eta sarbideko atari zabala dugu. Renoko Euskal Ikerguneak 55 urte egingo ditu 2022an eta, “eman ta zabal zazu” leloari jarraiki, euskal kultura eta historia mundu osora zabaltzeko gure eginkizuna beste 50 urtez betetzea espero dugu.

Gako-hitzak: Basque studies, Reno, euskal kultura, irakaskuntza, ikerketa.

Jasotze data: 2021eko irailaren 7an

Onartze data: 2021eko urriaren 6an

Abstract

In 1967, a Basque Studies Program was established at the Desert Research Institute. It was originally created to study the lives of immigrants in the Nevada desert but over the years it developed into a Center for Basque Studies (CBS). Rooted in the United States, the CBS's primary mission is to conduct research in the field of Basque studies and to disseminate the results of research in the United States and internationally. Dissemination is done through publications, primarily through the CBS Press collection, as well

as through presentations, lectures, conferences, and all kinds of creative activities. The CBS works very closely with the Basque Library, the largest collection of books on Basque related areas out of the Basque Country. Both the CBS and the Basque Library are open to all researchers interested in Basque studies in the US and in the world. The CBS will celebrate its 55th anniversary in 2022 and, under the motto “eman ta zabalzazu” (“give and spread”), we hope to fulfill our mission of conducting research and to disseminate the results of interdisciplinary research on the Basques to a local, national and international audience around the world for another 50 years.

Keywords: Basque studies, Reno, Basque culture, teaching, research.

1. LEHEN URTEAK

Basque Studies Program (BSP) 1967an sortu zen, William A. Douglass-en zuzendaritzapean. Jon Bilbao euskal liburutegia egituratzen hasi zen handik gutxira eta lehen doktoretza programa martxan jarri zen 1984an. 1994an, BSP-ak bere funts propioa sortu zuen, urtero printzipalaren %5 lortu eta jarduera akademikoak egin ahal izateko. 1998an Nevadako Unibertsitateak egindako programa akademikoen berrikuspenari jarraiki, Basque Studies Program-ek Center for Basque Studies (CBS) izena hartu zuen 1999an. Douglass 1999an jubilatu ondoren, 2000. urtean Joseba Zulaika hautatu zuten CBS-ko zuzendari. Bere zuzendaritzapean (2000-2006), CBS-ek nazio eta nazioarteko arloan hazkunde maila berriak bermatu zituen. CBS-ren finantziario oinarria nabarmen zabaldu zen 2001etik aurrera, ikerguneak atzerriko erakundeen kanpoko diru-laguntzak jasotzen hasi zenetik. Nevadako estatuaren finantzaketari esker hiru irakasle izatetik bost irakasle izatera iritsi zen CBS 2002. urtean. CBS-ek Advisory Board aholku batzordea sortu zuen 2001ean, epe luzerako plangintza estrategikoa eta funtsak biltzen laguntzeko, baita iker-gunearen nazioarteko hedapena zabaltzeko ere. 2003an, CBS-ek eta Nevada Press-en arteko akordioa bertan behera geratu zen eta ikerguneak liburu ekoizpen independenteari ekin zion. Jill Berner izan zen CBS-eko lehen liburugintza arduraduna eta lan horretan jarraitu zuen 2008 arte.

Gloria Toticaguena CBS-ko zuzendari hautatu zuten 2005ean eta CBS aholku batzordeak milioi bat dolarreko diru bilketa burutzea lortu zuen. Nevadako Unibertsitateak CBS-ren programaren bigarren berrikuspenean egin zuen 2006an eta, kanpoko azterketa taldeak egindako gomendioei jarraiki, unibertsitateak CBS-a eta Euskal Liburutegia lekualdatu zituen Mathewson-IGT Knowledge Center-eko areto berrietara, teknologikoki Estatu Batuetako punta-puntako liburutegi eraikinerara alegia.

2008an, mundu mailako finantza krisiaren garaian, estatuko legegintzaldiak Nevadako goi mailako hezkuntzan %4,5eko aurrekontu murrizketa agindu zuen. Horren eraginez, CBS-ek Nevadako Unibertsitateko administrazioaren azterketa estua jasan zuen, graduiko ikasle kopuru mugatua baitzuen. Krisi urteak izan ziren horiek. 2009-2010 ikasturtean, unibertsitatea oso kaltetuta zegoen Nevadako krisi ekonomikoaren ondorioz. 2010ean, UNR-k berrikuspen kurrikularra egin zuen zenbait programa guttiz itxiz. Unibertsitateko erretoretzak ez zuen CBS-a berrikusteko eta balizko ezabatzea bideratutako programen zerrendan sartu, eta Renoko Euskal Ikerguneak bai unibertsitateko probostaren zein humanitateetako fakultateko dekanorekin laguntza izan zuen. Ez zen ordea lasaitasunerako garaia izan. Ikerguneak irakasle bat eta langile administratibo bat (argitalpeneko arduraduna) galdu zituen.

Nevadako estatuak eta unibertsitateak goi hezkuntzan murrizketa nabarmenak bultzatu zituzten 2010-2011 ikasturtean eta erronkak areagotu ziren. Eric Herzik zen orduan CBS-ko zuzendaria. Hainbat aldaketa instituzional gertatu ziren urte horietan ere eta azken horiek erronka administratiboak, egiturazkoak eta 'kulturalak' ere ekarri zizkien CBS-ko irakasle eta langileei. Lanpostuen deskribapenak berridaztea, departamentuaren lan banaketa birplanteatzea eta departamentuen lehentasunak berrantolatzea bermatu zen 2013. urtean. Ziurgabetasun handiko urteak izan ziren horiek. Langile sailkatuen artean aldaketak ere gertatu ziren 2013az geroztik. Jill Berner 2008ko udazkenean erretiratu zen, hogeita hamabi urte lanean eman ondoren. Lisa Corcostegui ikasle graduatuak hartu zituen 2009ko urtarrilean Ikerguneko urteko buletinari (Newsletter) eta webguneari zegozkion betebeharrak. Corcostegui doktoretza amaitzean eta lanpostuen deskribapena berrikusi ostean, sailkatutako postu desberdinen bilaketa egin zen eta Daniel Montero argitalpenen editore gisa kontratatu zuen Ikerguneak 2009ko uztailean. 2011ko uztailean, Michelle Keele bilakatu zen web orriko arduraduna eta, 2011ko abendutik aurrera, Humanitateetako fakultateak hartu zuen departamentu guztien webguneen kudeaketaren ardura.

2011-2012 ikasturtean Joseba Zulaika eta Xabier Irujo hautatu zituzten zuzendariak. Irujo graduondoko ikasketetarako zuzendari izan zen ere. Atzerriko erakundeen eskuetatik diru sarrerak zabaltzea lortu zuten, tartean hiru doktoretza ikasle berri izateko dirulaguntzak lortuz.

CBS-ko zuzendariak

2000-2005 (5 urte) Joseba Zulaika

2005-2007 (2 urte) Gloria Totoricaguena

2008-2010 (2 urte) Eric Herzik

2011-2012 (urtebete) Joseba Zulaika eta Xabier Irujo

2013-2016 (3 urte) Sandra Ott eta Xabier Irujo

2016- gaur egun (6 urte) Xabier Irujo

2. GARAPENA

2013-2016 ikasturteetan Sandra Ott eta Xabier Irujo izendatu zituzten CBS-ko zuzendarikide berriak. Ott-ek barne zuzendari gisa lan egin zuen eta Irujok kanpoko harremanen eta graduondoko ikasketetarako zuzendaritzaren ardura izaten jarraitu zuen. Krisiak jota, 2013tik aurrera Ikerguneak hartu zuen berriz ere CBS-ko webgunea mantentzearen zein buletina ekoiztearen eta argitaratzearen erantzukizunak bi ikasle laguntzaileen sorospenarekin. Kate Camino bulegoko zuzendariak egonkortasuna eta jarraitasuna eskaini zion administrazio esparruan Ikerguneari 2009tik aurrera.

CBS-ko jarduera-sorta handitzen joan zen 2013ko programaren berrikuspenaz geroztik, baina urte hauetan krisitik berreskuratzea izan zen lehen helburua. Aurrekontu murrizketek jota, krisi urteak izan ziren kanpusean. 2013tik aurrera Euskal Ikerguneak Euskal Herriko Unibertsitatearekin kotutela hitzarmena sinatu zuen, eta lizentziatutako ikasleei graduondoko bi doktorego diploma ematea lortu zen.

Xabier Irujo CBS-ko zuzendari izendatu zuten 2016an eta Sandy Ott CBS-ko graduondoko ikasketetarako zuzendari. Joseba Zulaika erretiratu zen eta 2017an Mariann Vaczi Ikerguneko irakasle bihurtu zen.

2016 eta 2018 bitarteko zeregin zailenetako bat aurrekontu eskaerak prestatu, proposatu eta bideratzea, gastuen lehentasunak ezartzea eta CBS-eko aurrekontua administratzea izan zen. Ikerguneak hainbat aldaketa abiarazi zituen urte horietan, erakunde akademiko hau modu dinamikoago eta profesionalago batean hazten ahalbidetuz eta, era berean, iraunkortasun eta ekilibrio finantzaria bermatuz. 2016 eta 2019 artean, CBS aurreko finantza krisiaren eraginetik berreskuratu zen. Dotazio funtsak bere balioa %35ean handitu zuen eta CBS Press-en aurrekontua egonkortu egin zen. Ikerguneak nazioarteko akordio berriak sinatu zituen euskal erakundeekin. 2015ean, zentroak nazioarteko bi hitzarmen sinatu zituen Euskal Elkarte Autonomoko erakundeekin, aurretik aztertu gabeko arloetan ikerketa zabaltzeko. 2016an hasita, ikerguneak hitzarmena formalizatu zuen Bizkaiko aldundiarekin euskal zerga sistemak eta itun ekonomikoak aztertzeko. Ordutik CBS-ek kontzertuetan espezializatutako bisitari bat jasotzen du kanpusean. 2017tik hona, CBS-ek Jaurlaritza, Nafarroako gobernua eta Nevadako gobernuaren arteko harremanak erraztu ditu hiru administrazio horien arteko akordio ekonomikoak garatzen lagunduz. 2018an CBS-ek lagundu zion Brian Sandoval Nevadako gobernadorearen laguntzaile taldeari Euskal Herrira etorri ahal izateko. Sandoval-ek astebete eman zuen Euskal Herrian Jaurlaritza, Nafarroako gobernua eta Bizkaiko aldundia Nevadako gobernuarekin harremanak sendotzearen eta administrazio horien arteko akordio ekonomikoak garatzen laguntzeko.

2018an hasita, CBS Press-ek produkzio sistema berria antolatu zuen eta itzul-tzaile eta editore talde berria sortu. 2000. urtetik, hots, Euskal Ikasketen Programa Re-

noko Euskal Ikergunea bihurtu zenetik, CBS-ek 174 liburu argitaratu ditu. 2017an CBS Press-ek hamabi liburu argitaratu zituen eta ekoizpen maila hori mantendu du 2021. urtera arte. 2019an CBS Press ekonomikoki egonkorra eta beregaina den erakundea bihurtu zen lehen aldiz. CBS Press-ek aurrekaririk gabeko hazkundea izan du. Liburuaren ekoizpena bikoiztu egin da 2013az geroztik. 2018an, Daniel Monterok CBS Press utzi zuen eta Keystone Canyon Press-ekin hasi zen CBS liburuak ekoizten. Gaur egun Alrica Goldstein da argitalpenen editorea. 2018ko aldaketa horrek inflexio puntu bat suposatu du CBS Press-eko garapenean, neurri handi batean aurreko urteetan irabaziko esperientziarengatik, atzerrik liburuak argitaratzeko diru laguntzak eta salmentak handitzeagatik eta Ikergunean komunikazio egiturak hobetzeagatik. 2006 eta 2013 bitarte, CBS Press-ek 54 liburu argitaratu zituen eta, 2013 eta 2020 bitarte, 76.

Era berean, kalitatea hobetu zen. 2017az geroztik CBS Press-eko liburuak Book Citation Index Clarivate-k indexatu ditu. Web of Science Core Collection web orriko Book Citation Index-a (BCI) liburu bildumak arte, giza eta gizarte zientzien arloko libururik nabarmenenak azkar eta erraz identifikatzen eta atxikitzen ikertzaileei laguntzeko tresna da. BCI kalitate etiketa da, ikerlariak aipamen indizeetan oinarritzen baitira ikerketarako baliabide onenak identifikatzeko. BCI-k CBS Press-eko bildumaren ikusgarritasuna areagotzen du, liburuak indexatuz eta beharrezko kalitatea dutela bermatuz.

BCI-n egoteaz gain, CBS Press Scholarly Publishers Indicators (SPI) web orrian ere agertzen da, hots, gazteleraz idazten duten egile eta ikerlarien ingelesez argitaratutako liburu indize bakarra. Scholarly Publishers Indicators-ek erakusten duen moduan, 2014an CBS Press 248. postuan zegoen munduko argitaletxe onenen artean adituen arabera. 2018az geroztik CBS Press 87. postuan dago SPI-ko zerrendaren arabera (<http://ilia.cchs.csic.es/SPI/>).



Center for Basque Studies, Mathewson-IGT Knowledge areto berrian

CBS Press-eko argitalpen asko itzulpenak direla kontuan hartuta, 2018an CBS Press-ek Etxepare Sari ospetsua jaso zuen 2018ko euskara-ingeleszko itzulpen argitalpen onenari. Saritutako liburua, *Downhill & Rock and Core* Gabriel Arestiren *Maldan behe* (1959) eta *Harri eta herri* (1964) ingeleszko itzulpena izan zen. Jon Kortazar euskal literatura irakasleak (egilearen biografia ere idatzi zuenak) egin zuen hitzaurrea eta Amaia Gabantxorena zen itzulpena. CBS Press-ko liburuen itzulpenaren eta edizioaren kalitatearen berrespena da hau.

2017an Renoko Euskal Ikerguneak 50. urteurrena ospatu zuen eta Eusko Ikaskuntzaren eskutik ENE 2018 Saria jaso zuen “Amerikako ikergune akademiko honek bere mende Erdiko historian zehar euskara eta euskal kultura arloetan egin duen lanagatik”. Euskal Herrian egon ez arren, hizkuntzaren eta euskal kulturaren alde diharduten erakundeen lana goraiatu zuen garaikurrak. Eta Eusko Ikaskuntzak ohar batean azaldu zuenez, “Estatu Batuetako erakunde horrek lan izugarria egin du orain dela mende erdi martxan jarri zenez gero. Hala, Nevadako Euskal Ikasketen Zentroa (CBS) euskal kulturaren ikur esanguratsu bilakatu dela” nabarmendu zuten Eusko Ikaskuntzako arduradunek.

2015eko irailetik, Iñaki Arrieta da Basque Library euskal liburutegiko zuzendaria. Euskal Herritik kanpoko euskal kulturari buruzko bilduma nagusia da Renoko liburutegia eta agiritegia. Ikergunearen eta CBS Press-eko egiteko nagusia euskal kultura arloko giza zientzietan eta gizarte zientzietan ikerketak bermatzea eta zabaltzea da, esparru honetan ingelesez ikerketa originalak ahalbidetuz eta hedatuz. Hori kontuan hartuta, liburu bildumaren herenak sarbide irekia du euskal liburutegiko UNR-ko biltegian (<https://scholarworks.unr.edu/handle/11714/111>). Iñaki Arrietarekin elkarlanean, CBS Press-ek bere liburuen banaketa eta saretzea sustatu ahal izan du. 2016an, 7.904 liburu deskargatu ziren mundu osoan zehar. 2017an 11.808 deskarga gauzatu ziren eta 14.399 deskarga 2018an, 17.071 2019an eta 69.849 2020an. Guztira, 2016 eta 2020 bitarteko bosturtekoan, CBS Press-ek 121.031 deskarga gauzatu ditu; batez beste egunero 66 liburu deskargatu dira 2016tik. Batez beste, 2.200 deskarga gertatu dira izenburu bakoitzeko 2016tik bost kontinenteetan. Eta 121.031 deskarga, 121.031 irakurle dira.

2019an Larraitz Ariznabarreta CBS-ko irakasle bihurtu zen.

3. EUSKAL IKASKETAK GAUR

Egun, Ikergunearen eginkizun nagusia euskaldunei buruzko ikerketak suspertzea izanik, euskal kulturaren arloko esparru ezberdinetako ikerketen emaitzak bertako, Estatu Batuetako eta nazioarteko ikertzaileei zabaltzen zaie argitalpenen, konferentzien, aurkezpenen, hitzaldi publikoen eta sormen jarduerak ezberdinen bitartez. Misioa euskaldunei

buruzko ezagutza sustatzea da ekimen akademiko eta ez-akademikoen bidez. Ikerketa eta dibulgazioa izan dira beti ikergunearen lehentasun handienak. Era berean, ikerguneak euskaldunei buruzko ezagutza zabaltzen du graduako eta graduondoko irakaskuntzaren bidez. Ildo honetan, CBS nazioarteko doktorego programa online bat sortzen saiatzen ari da egun UNR-eko ekonomia eskolarekin eta Bizkaiko aldundiarekin koordinatuta, gobernantza deszentralizatuaren eta sistema fiskalen eremuan ikerketak sustatzeko.

Nevadako Unibertsitatearen plan estrategikoan ezarritako moduan, ikergunearen egitekoa eta helburuak unibertsitatearen osagarri dira. The Carnegie Commission on Higher Education edo Carnegie Goi Mailako Hezkuntzako Batzordeak 2018ko abenduan jakinarazi zuen UNR ikerketa unibertsitateetako sailkapen nagusira igo zela, alegia, R1-Doktorego Unibertsitatea. 2020an Carnegie Community Engagement Classification-ek Carnegie Foundation for the Advancement Teaching-ek egindako sailkapena Estatu Batuetako 243 erakundek lortutako aitortpena da.

2020an Nevadako Unibertsitatearen plan estrategikoaren funtsezko helburuen arteko bat graduako hezkuntza suspertzea da. Unibertsitateak euskal ikasketetan espezializaziorik ez duen arren, Euskal Ikerguneko irakasleek hautazko eta aniztasuneko ikastaro ugari eskaintzen dituzte, euskal diasporan, euskal kulturaren eta euskaldunen historian interesa duten eta gero eta ikasle kopuru handiagoa erakartzen dituztenak. Urtez urte graduako 200 bat ikasle hartzen dituzte CBS-k eskaintzen dituen ikasgaiak, besteak beste, euskal kultura, euskal diaspora, euskal politika edota euskal antropologia eta Euskal Herriko historiaren inguruko kurtsoak. Kulturalki anitza den Euskal Ikerguneak UNR-eko ikaslearen esperientziaren globalizazioa suspertzen laguntzen du graduondoko irakaskuntzaren bidez. Era berean, UNR-eko ikergunean bertan osatu zen USAC atzerriko ikasketen programarekin lotura estua izan du urtetan CBS-ek, Euskal Herrian UNR-eko presentzia nabarmenki handituz.

UNR-eko funtsezko bigarren helburu estrategikoa graduondoko hezkuntzari dagokio. Renoko Euskal Ikergunea Estatu Batuetako euskal ikastetan doktorego baten hornitzaile bakarra da. Graduondoko ikasleek euskal ikasketetan doktoretza lortzen dute honako diziplina hauetako batean: antropologia, atzerriko hizkuntzak eta literaturak, historia, genozidio ikerketak eta zientzia politikoa. Zentroak UNR-ko doktoregaien ikasketak-tasarik altuenetakoa du orain. Hots, CBS-ek ikasketa osatze-tasa %100etik gertu dago eta, ondorioz, errendimendu akademiko baxuko porrot-tasa zerotik gertu kokatzen da. Gaur egun, ikerguneak Nevadako estatuak finantzatutako bi graduondoko laguntza ditu, Eusko Jaurlaritzak finantzatutako beste bi graduondoko laguntza programa, eta lau urteko aldi finkoetarako laguntza pribatuak ere baditu.


UNR-eko plan estrategikoaren helburu garrantzitsu bat ikerketa akademikoa da. Renoko Euskal Ikergunea Estatu Batuetan zein nazioartean euskal ikasketetan ikerketak

ingelesez bideratzen dituen munduko ikergune nagusizat hartzen da. Ikerketa eta argitalpenak dira ikerguneko fakultatearen lehentasuna, beteak beste, aldizkari zientifikoetan artikulua, liburu akademikoetan ikerketak, nazioarteko kongresuak eta erakusketa artistikoak ere bultzatuz. Ikerketetan eta kongresuetan parte hartuz, irakasleek nazioarteko diziplina anitzeko sareak eraiki dituzte Nevadako Unibertsitatearen ikerketa erakunde gisa duen profila suspertuz. Renoko Euskal Ikerguneko kideek gero eta parte hartze zabala goa dute ikerketekin lotutako eginkizunetan, esaterako, Estatu Batuetako giza zientzien paneletan parte hartuz, argialetxe ezberdinetako erredakzio kontseiluetan lan eginik, erakunde akademiko eta kultural ezberdinetako kontseiluetako edota patronatuetako kide izanik eta horrelako beste jarduera batzuetan parte hartuz. 2003az geroztik, CBS-ek 17 konferentzia antolatu ditu eta batez beste nazioarteko hiru mintegi, jardunaldi eta konferentzia antolatzen ditu urtean. Adibidez, 2019an CBS-ko irakasleek nazioarteko 26 mintegitan, hitzaldietan eta ekitaldi akademikoetan parte hartu zuten.

Azkenik, 2018az geroztik CBS-ek kanpoko lankidetzak ugari sustatu ditu estatu-batuar eta euskal erakundeekin (besteak beste, Boise State University-ko eta University of Californi, Santa Barbara-ko euskal ikasketen programekin, Smithsonian Foundation erakundearekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Aldundiarekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, Mondragon Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Etxepare Institutuarekin). Lankidetzak hauen bitartez euskal kultura arloko ikerketak zabaltzen dira.

UNR-eko komunitate, gobernu eta industria suspertzeko helburuari dagokionez, Renoko Euskal Ikerguneko irakasleek eta graduondoko ikasleek aldizka programa ezberdinetan parte hartzen dute bai Renon zein Nevadako beste leku batzuetan, eta Kalifornian eta Idahon ere. Aurkezpen eta hitzaldi akademiko eta dibulgatibo hauen bidez eta jarduera artistiko eta sortzaileen bitartez euskal kulturaren inguruko informazioa eta interesa pizten du Estatu Batuetan eta nazioarteko mailan ikerguneak. Nazio eta nazioarteko eraginari dagokionez, CBS Estatu Batuetan zein atzerrian ezaguna den ikerketa-unitate akademiko ospetsua da, nagusiki antropologia, historia, genozidio ikerketak eta zientzia politikoen arloetan. Ikerguneak urtez urte Euskal Liburutegian ikerketak egitera etortzen diren nazioarteko irakasle, aditu, ikertzaile eta graduondoko ikasle ugari biltzen ditu.

2018an Anthony Marnellek, Sparks Nugget Kasinoko jabeak, Nuggeten dagoen euskal artzainaren monumentua eman zion CBS-eri. Jatorriz, 10 metro eta erdiko altuera duen brontzezko monumentua John Ascuagak erosi zuen 1998an eta Doug Van Howd artistak berak Orozco jatetxeak instalatu zuen Nugget Kasinoan. Van Howd Nevadan jaiotako eskultore eta margolari entzutetsua da, mundu osoan ezaguna egin baita bere fauna eta Estatu Batuetako mendebaldeko ikurren sorkuntzengatik eta bere lanak mundu osoko bildumetan daude. UNR-eko futbol zelaiaren sarreran dagoen Otso Taldearen eskultorea da. Euskal artzainaren monumentua gaur egun campuseko harkaitz-egitura batean dago,



Euskal artzainaren monumentua UNReko kanpusean, Nevadako diasporako euskalduntasunaren ikur

Euskal Ikergunetik gertu. Monumentuak hamarkadetan euskal etorkinek egindako lan gogorraren adierazle eta ikur da, bere dedikazio plakan bildutako mezu ederrak adierazten duen moduan: “Gure gurasoen omenean, Estatu Batuetako mendebaldea garatzen lagundu zuten euskal etorkin ugariaren artean zeudenak. Mundu zaharreko zintzotasunaren eta lan gogorreko balioak ekarri zuten eurekin eta Amerikak aukera eskaini zien”.

4. ONDORIOAK

Renoko Euskal Ikerguneko eginkizuna neurri handi batean 2016ko eta 2020ko plan estrategikoak ezarritakoa izaten jarraitzen badu ere, ikergunearen arreta eta jarduera maila areagotu egin da bi alor nagusietan: argitalpenak eta doktorego programa. Azken zazpi urteetan, CBS Press ingelesez euskaldunei buruzko liburu akademikoen argitaletxe nagusia bihurtu da. Horrez gain, liburu sail berriak sortu dira Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta beste atzerriko erakunde batzuekin batera. Sail berri hauei esker liburuen ekoizpena bultzatu ez ezik, CBS-k beste unibertsitate, museo, erakunde kultural eta ikertzaileekin dituen harremanak zabaldu eta sakondu ditu. Sail berri hauen bidez orain arte ingelesez aztertu ez diren euskal kultura arloko esparruak aztertzeke aukera eman dizkio CBS Press-ek zenbait ikertzaileei, lehen aldiz ingelesez gai hauei buruz argitalpena suspertuz. Adibidez, *History of the Basque Music* dugu egun euskal musikaren historiako ikerketa lan bakarra ingelesez, eta euskaraz argitaratu den euskal musikaren historia akademiko sakonenen arteko bat ere. Gauza bera esan dezakegu, besteak beste, azken urte hauetan argitaratu berri diren, *Nazi Juggernaut in the Basque Country and Catalunya*, *LGBTQI+ in the Basque Country* eta *Prostitution in the Basque Country and in Nevada* liburuei buruz.

Euskal kultura arloko ikerketa interesak nazioarteko mailan suspertuz, doktoregaien kopurua handituz eta argitalpenak eta kongresuak nazioarteko mailan antolatuz, Renoko Euskal Ikerguneak bere egin du Iparragirreraren bertsoa, *eman ta zabal zazu munduan fruitua*.